

ARAUDIAK

MATRIKULAZIO-ARAUDIA.MATRIKULA EGITEA ETA IKASLEAK ONARTZEA).

Eskolak ikaslearen behin-behineko matrikulazioa gauzatuko du hurrengo ikasturterako: batetik, Eskolako ikasle ofiziala izanda, espezialitate berean ikasten jarraituko duen ikaslearena, eta bestetik, onartutako ikasle berriarena.

I. KAPITULUA. MATRIKULAZIO-PROZESUEN EGUTEGIA

Plazen azken eskaintza zehazteko prozesua honela egingo da:

1. artikulua

1.- Martxo (Eskola Kontseilua).

Hurrengo ikasturterako plaza hutsen gutxi gorabeherako eskaintza aurkeztea eta onartzea.

2.- Apirila. (Irakasleen 4. klaustroa).

Ikasle **ofizialentzako**, plaza hutsen eskaintza aurkeztuko da.

3.- Maiatzeko 1. astea.

Ikasle ofizialei aurreinskripzio-matrikula inprimakia posta elektronikoz bidaltzea. Instrumentua lehen aldiz eskuratu nahi duten ikasle ofizialen kredituak berrestea.

4.- Maiatzeko 1. eta 2. asteak.

1.1 Aurre-matrikularen datuak aldatzeko eta baja akademikoak jakinarazteko epea.

4.2 Eskolara lehenengoz etorriko liratekeen Lezon erroldatutako I. mailako haurrei informazio pertsonalizatua bidaltzea posta tradizionalaren bidez, gure zerbitzuak eskainiz eskolara lehen aldiz etorriko liratekeen.

4.3 Matrikulazio-kanpaina ikasle berrientzat (1. deialdia).

5.- Maiatzeko 3. astea.

5.1 Instrumentua lehen aldiz eskuratu nahi duten ikasle ofizialen kredituak berrestea

5.2 Ikasle ofizialei dagokien instrumentu-eskaria aztertzea.

1. **Ianeguna**- Ikasle ofizialen behin-behineko zerrendak eta itxarote-zerrenda argitaratzea, instrumentuaren aukeren arabera.

2. **Ianeguna**.- Erreklamazioak egiteko eta akatsak zuzentzeko eguna.

3. **Ianeguna**- Behin betiko zerrendak eta behin betiko itxarote-zerrenda argitaratzea.

5.3 Esleitutako instrumentuarekin ados egonez gero, aurreinskripzio-matrikula inprimakia baliozkoa izango da ondorio guztietarako.

6.- Maiatzeko 4. astea.

6.1 Eskolara lehen aldiz etortzen diren ikasleentzako eskaintza aztertzea eta argitaratzea (II., III., IV. mailak). Plazen eskaintzaren emaitza Musika Eskolako iragarki-taulan argitaratuko da.

6.2 Aurreinskripzio-matrikula eskolara lehen aldiz etortzen diren ikasleentzat.

6.3 Behin **5.1, 5.2, 5.3, 6.1 eta 6.2** atalak formalizatuta, Lezon bizi ez diren ikasleei erantzun zaila, eta plaza hutsak daudenean onartuko dira.

7.- Ekaineko 3. astea.

Tasak murrizteko eskaerak ebaztea, egon daitezkeen plaza hutsak aztertzea eta, ondorioz, plaza hutsak itxarote-zerrendako ikasleei esleitzea.

Edozein gorabehera aste honetan konponduko da.

8.- Uztaileko 4. lanegunetik aurrera.

Ikasle ofizialen eta ikasle berrien matrikulari alta ematea, lehenengo banku-igorpena egin. e ta, ondoren, kobratu dela egiaztatuta.

9.- Abuztuko 4. astea.

Ikasle berriak matrikulatzeko kanpaina (2. deialdia).

10.- Iraileko 1. astea.

Ikasle berriak matrikulatzeko bigarren epea.

11.- Iraileko 2. astea.

11.1 Plaza hutsak geratzen badira. Aurreinskripzio-matrikula irailean egin duten ikasle berriei plazak esleitzea, espezialitateen arabera.

Iraileko 2. astea. 1. laneguna.- Onartutako ikasle berrien eta itxarote-zerrendan geratu direnen behin-behineko zerrendak argitaratzea, espezialitateen arabera.

Iraileko 2. astea. 2. laneguna.- Erreklamazioak egiteko eta akatsak zuzentzeko eguna.

Iraileko 2. astea. 3. laneguna. Onartu direnen eta itxarote-zerrendan geratu direnen behin betiko zerrendak argitaratzea.

11.2 Esleitutako espezialitatearekin ados egonez gero, aurreinskripzio-matrikula inprimakia baliozkoa izango da ondorio guztietarako.

11.3 Behin 11.1 eta 11.2 atalak formalizatuta, Lezon bizi ez diren ikasleei erantzungo zaie, eta plaza hutsak baldin badaude, onartuko dira.

12.- Urriko 1. astea.

Onartutako ikasleei matrikulan alta ematea deialdi ofizialaren ondoren (ekaina), 1. banku-igorpenaren bidez (matrikula+1. tasa) eta, ondoren, kobrantza berrestea.

II. KAPITULUA. IKASLE OFIZIALEN MATRIKULAZIOA

1.artikulua

Ikasle ofizialen kasuan (lehenengo ikasleak, II., III., IV. mailak) prozesua online egingo da eta automatikoki plaza erreserbatuko da.

2. artikulua

Ezin izango dute matrikula berritu ondorengo ikasle hauek:

1. Aurreko ikasturteetako tasa guztiak ordaindu **ez** dituztenek.

2. Jasotako irakaskuntzak ez dituztela bat ere aprobetxatu eta interesik ez dutela erakutsi dutenek edo AJAn adierazitako justifikatu gabeko falta-kopurua egin izana.

1go.ATALA.

PROZEURA

3.artikulua

- Musika-eskolak posta elektronikoz bidaliko du matrikula-inprimakia maiatzeko 1. astean, eta automatikoki berretsiko du plaza-erreserba. Ondoren, ikasleek maiatzaren 1. eta 2. asteak izango dituzte egokitzen dituzten aldaketak egiteko.

- Matrikula-inprimakian honako hauek agertuko dira: datu pertsonalak, bankuko datuak, eginiko aukera, espezialitatea, aukera daitezkeen irakasgai osagarriak (besterik adierazi

ezean), ordaindu beharreko zenbatekoa eta ordaintzeko epeak.

- Ikasle ofizialen matrikulari uztailean ematen zaio alta, lehenengo banku igorpena egin eta, ondoren, kobratu dela egiaztatuta.

II. ATALA

Instrumentua lehen aldiz aukeratzen duten Musika Eskolako ikasle ofizialak ondoren zehazten den moduan matrikulatuko dira:

4. artikulua

- Musika-eskolak on-line bidaliko du matrikula-inprimakia maiatzeko 1. astean, eta automatikoki berretsiko du plaza-erreserba. Ondoren, ikasleek maiatzaren hirugarren astera arteko epea izango dute egokitzen jotzen dituzten aldaketak egiteko.

- Inprimakia matrikula-orriaren antzekoa izango da. Ezberdintasuna izango da espezialitateari dagokion hutsunean, lehentasun-ordenaren arabera adierazi behar direla aukeratutako instrumentuak (gutxienez 2 instrumentu).

- Plaza hutsen eskaintzaren emaitza ikasturteko <Eskaintzaren prozeduran> zehaztutakoa izango da.

- Eskaintza TGLUMEren iragarki-taulan argitaratuko da.

- Ondoren, plaza hutsak **esleitu**ko dira.

- Ikasleen artean lehentasunezko hurrenkera bat ezarriko da, prozesu honen

ondorio izango dena:

1. Instrumentua lehen aldiz aukeratzen duten I. mailako ikasleak eta instrumenturik esleitu gabe itxaron-zerrendan dauden ikasleak, instrumentua eskuratzeko ezarritako parametroak betetzen dituztenak.

2. Kreditu-kopurua. Emaitza ordura arte lortutakoen eta indarreko ikasturtean zehar matrikulatutakoen (berdin dio emaitza zein den) batura izango da.

Akta akademikoen arabera (entregatzeko data: ekaineko 3. astea), kreditu-kopurua esleipen-prozesuan balioetsitakoekin bat ez baletor, ikaslea une hartan legokiokeen lekura pasako litzateke.

3. Plazak honela esleitu dira:

3.a Kreditu gehien dituzten ikasleek izango dute lehentasuna.

3.b Kreditu-berdintasunean:

3.b.1 Lehentasuna izango dute Baliozkotzeak aukeratu ez dituzten ikasleek.

3.b.2. Berdinketak jarraitzen badu, zozketa bidez ebatziko da.

4. Plazak korrelatiboki esleitu dira eta, horretarako, ikasleak adierazi duen espezialitate-ordena aplikatuko zaio kreditu-kopuruaren arabera sortutako zerrendari, hutsik dauden plaza guztiak bete arte.

5. Bere gogokoa den aukeraketan plaza eskuratzeko duen ikasleak, beste espezialitate-takoko zerrendetatik kendu egingo dira.

6. Musika-tresnak esleitu ondoren bajaren bat egonez gero, plaza hutsak betetzeko, kontuan hartuko dira ikasleak <kredituak> zerrendan duen ordena korrelatiboa eta matrikula-inprimakian adierazitakoa.

7. Musika-tresna horietako batean plaza lortuz gero, EZIN izango zaio uko egin; uko eginez gero, ikaslea azkena izatera igaroko da <musika-tresna aukeratzea> zerrendan.

8. Plazak esleitu ondoren ikasleari jakinarazten bazaio ez duela eskatutako musika-tresna bakar batean ere plazarik lortu, TGLUMEk aukera hauek emango dizkio:

8.1 Plazak dauden beste musika-tresna batekin has daiteke. Hori eginez gero, itxarote-zerrendan egongo litzateke, kredituak lortuko litzateke eta aukera izango luke ikasturtean eskatutako lehentasunezko musika-tresnetako bat aukeratzeko hurrengo

ikasturtean.

8.2 Instrumentuarekin ez hastea eta hurrengo ikasturtean gainerako irakasgai osagarriak egitea. Horrek esan nahi du tresnaren itxaron-zerrendan egotea, lehenengo esleipenean lortutako kreditu berberekin. Aurrerantzean **ez** du krediturik lortuko

8.3 Ikasturtean instrumentua utzi eta beste instrumentu bat hartu nahi duten ikasleek bi ikasturtez egon beharko dute ikasle ofizial gisa instrumentuaren itxarote-zerrendan.

Bajaren ondoren lortutako kredituak ez dira kontabilizatuko.

Nahi duen instrumentuan plaza librerik badago, automatikoki emango zaio.

- Plazak esleitzeko prozesuak amaitutakoan, behin-behineko zerrendak eta itxarote-zerrenda argitaratutakoan, erreklamazioak eta akatsen zuzenketak egindakoan, eta behin betiko onartu direnen eta itxarote-zerrendan geratu direnen zerrendak argitaratu ondoren, maiatzeko hirugarren astean, **“Matrikulazio-prozesuen egutegia”** atalean jaso bezala, prozesua amaitutzat emango da.

- Esleitutako instrumentuarekin ados egonez gero, aurreinskripzio-matrikula inprimakia baliozkoa izango da ondorio guztietarako.

- Kredituak ekaineko 3. astean baieztatuko dira, eta aste horretan ebatziko da sor daitekeen edozein gorabehera.

- Ikasle ofizialen matrikulari uztalean emango zaio alta, lehenengo banku-igorpenera egin eta, ondoren, kobratu dela egiaztatuta.

- Edozein gorabehera M.E.ko Arduradun-Irakaslearen irizpideen arabera ebatziko da.

III.KAPITULUA. IKASLE BERRIEN MATRIKULAZIOA.

TGLUMEn hasi nahi duten ikasle **berrien** aurreinskripzio-matrikula. Prozedura honi jarraituko zaio:

- Ikasle ofizialek matrikula egin ondoren, hutsik geratutako plazak ikasle berriei eskainiko zaizkie.
- Ikastetxeko titularrak soilik ikasle helduentzako plazak eskaintzea erabakitzen badu, plaza horiek araudi honetan dagokion moduan esleituko dira.
- 12 urtetik aurrera jotzen da heldutzat.
- Titulua lortzeko nahitaezkoak diren musika-mintzairako kurtsoak bete dituzten 12 urtetik beherako ikasleek ikasle helduei zuzendutako eskaintza eskuratzeko aukera izango dute. Beti, eta araututakoa eta matrikulazio-epea betetzen dituenean.

5.artikulua.

- Eskolak ohiko hedabideetan (egunkariak, kartelak eta web-orria) emango du hurrengo ikasturterako eskaintzen diren espezialitateen eta <aurreinskripzio-matrikula> betetzeko ezarritako epeen berri. Informazio hau **maiatzeko 3. astean** (1. deialdia) eta **abuztuko**

4. astean (2. deialdia) ematen da.

- Salbuespen gisa, maiatzan, Eskolara lehenengoz etorriko liratekeen Lezon erroldatutako haurrei informazio pertsonalizatua bidaliko zaie posta tradizionalaren bidez, gure zerbitzuak eskainiz. Informazio horrek, eskaintzaren ezaugarriak adierazteaz gain, <aurreinskripzio- matrikula> inprimakia ere erantsiko du.

- Matrikula inprimakia ikasle ofizialenaren antzekoa izango da, baina honetan ikaslearen datuen eremuak bete gabe egongo dira.

- Jarraian <aurreinskripzio-matrikula> egingo da.

- Plaza hutsen eskaintza kalkulaturako plazen eta ikasle ofizialei esleitutako arteko aldearen emaitza izango da. TGLUMeko iragarki-taulan argitaratuko da eskaintza, maiatzeko 3. astean.

- Ondoren, plaza hutsak **esleituko** dira.

1. Eskaria eskainitako plaza-kopuruaren berdina edo txikiagoa denean, plazak automatikoki esleituko dira.

2. Plaza erabilgarrien baino eskaeren kopuru handiagoa duten maila, kurtso eta irakasgaietan lehentasun prozesu honen arabera ordena aplikatuko da:

Lezon erroldatutako ikasleak.

TGLUMEn tailerren bat egin duten ikasleek lehentasuna izango dute. Antzinatearen arabera lehentasuna.

- **Itxarote-zerrendan dauden** Lezon erroldatutako **ikasleak**, beti ere **EHPn** jasotzen diren baldintzak betetzen badituzte eta ezartzen diren epeetan ikastaro berrirako aurreinskripzio-matrikula egin badute.

Plazak izena emateko hurrenkeraren arabera esleituko dira.

- **Lezon erroldatuta ez dauden ikasleak.** Aurreko irizpideak aplikatuko dira, Lezon erroldatutakoei dagozkienak.

- Plazak esleitzeko prozesuak amaitutakoan, behin-behineko zerrendak eta itxarote-zerrenda argitaratutakoan, erreklamazioak eta akatsen zuzenketak egindakoan, eta behin betiko onartu direnen eta itxarote-zerrendan geratu direnen zerrendak argitaratu ondoren, maiatzeko laugarren asteen, **“Matrikulazio-prozesuen egutegia”** atalean jaso bezala, lehenengo aldiz Musika Eskolan izango diren ikasle berriak matrikulatuko dira.

- Esleitutako espezialitatearekin ados egonez gero, aurreinskripzio-matrikularen inprimakia baliozkoa izango da, betiere, kontu korrontearen titularraren sinadurarekin bermatuta badago.

- Aurreinskripzio-matrikula egiteak plaza erreserbatzea dakar.

- Instrumentua esleitutakoan, ikasleak ezin izango du espezialitatea aldatu. Bestela, itxarote-zerrendako azken posiziora pasako litzateke.

- Ikasle berrien matrikulari uztailen ematen zaio alta, lehenengo banku-igorpenean egin eta, ondoren, kobratu dela egiaztatuta.

- Edozein gorabehera M.E.ko Arduradunaren irizpideen arabera ebatziko da.

6.artikulua.

Plaza hartuko duen ikasle berria musika ezagutza batzuekin datorrenean, proba bat egingo du dagokion diziplinako irakaslearekin, bere gaitasunetara ondoen egokitzen den kurtsoa hartzeko.

7.artikulua

Instrumentua, ordutegia, taldea, etab. aldatzeko eskaerak bulegoan eskura daitekeen inprimaki ofizialean egingo dira. Erregistratu eta M.E.ko Arduradun-irakasleari helaraziko zaizkio eskaera horiek.

8.artikulua

Aldaketa hauek hutsik dauden plazen, taldeen eta ordutegien arabera izapidetuko dira, betiere, eskaera behar bezala eta horretarako ezarritako epean egin bada. (Matrikulazio- epeak. Kurtsoaren aurkezpen-eguna barne).

9.artikulua

Musika Mintzaira eta Musika Hezkuntza errepikatzen duten ikasleek galdu egingo dute ikasturte berrirako dauden ikasle ofizialen aurrean lortutako lehentasun oro. M.E.ko Arduradun-Irakasleak egoki ikusten duen antolaketaren arabera geratuko dira.

Aldaketa guztiak eskolak hasten diren 1. astean erabakiko dira.

10.artikulua

Ikasleak ikasturtean zehar baja emanez gero, tasa osoa ordaindu beharko du. Lehenago baja emanez gero, ez zaio matrikulari dagokion zenbatekoa itzuliko, kontzeptua <plaza- erreserba> gisa hartzen baita.

AZKEN XEDAPENA

Eskola-kontseiluburuari ahalmena ematen zaio araudi hau aplikatzeko eta garatzeko behar adina arau eman ditzan.

Ikasturte horretarako onartutako <Eskaintzaren prozedura> dokumentua araudi honen gaineratik egongo da ondorio guztietarako.